

# Linguistic Turns in Modern Philosophy

MICHAEL LOSONSKY

Cambridge: Cambridge University Press, 2006, xvi + 275 or.

Liburu honek merezi du aipatzea. Benetan. Oso egokia da hizkuntzaren filosofia filosofo ez zen (batez ere, matematikaren oinarrietan, eta, hortik, logikan lan erabat garrantzitsua egin zuen matematikari isolatua baizik) Fregerekin hasi, eta gaur egungo filosofia pragmatiko zein post-analitikoan agortzen dela uste dutenen uste «sendoa» ahultzeko. Egia da *Colorado State University*ko irakasle den autoreak ez duela liburuaren izenburuan hizkuntzaren filosofia aipatu, baina egia da, baita ere, haren iritziz, filosofiaren esparru hori Lockeren *Essay Concerning Human Understanding* (1690) obrarekin hasten dela; hain zuzen obra horren hirugarren liburuarekin («Hitzei buruz»). Esan beharrik ez dago enpirismoa baino gehiago arrazionalismoa gogoko dutenek (Yvon Belavalek, esaterako) Leibnizen *Nouveaux Essais sur l'Entendement Humain* (1765) hilondoko obra jotzen dutela esparru horren sortzaile, eta, jakina, horren hirugarren liburua bereziki; Leibnizen obraren egiturak Lockenarena berragertzen baitu, ihardespina ia lerroz lerrokoa denez.

Edonola ere, honako hauxe adierazi nahi du autoreak hasieratik zuzen: filosofia analitikoa, filosofiaren historiari kasu askorik egin gabe, besterik dioen arren, Fregerekin ez zen filosofian izan hizkuntz birA, hizkuntz biretako bat baizik. Garrantzitsua, hori bai. Eta nahiz, oro har, Lockeren (eta Descartes) filosofia bira epistemologikoaren sortzaile gisa hartu, autoreak Locke jotzen du hizkuntz biraren lehen filosofo nagusizat. Baina apenas azaltzen den Locke hizkuntzaren filosofiako testuliburuetan, ezta aitzindari historiko gisa ere. Hona erabilpen zabaleko bi liburu mardul horren adibide: (a) Peter Ludlow (arg.), *Readings in the Philosophy of Language*, MIT Press, 1997, 1073 or.; (b) Michael Devitt & Richard Hanley (arg.), *The Blackwell Guide to the Philosophy of Language*, Oxford: Blackwell, 2006, 446 or.

Losonskyren liburuak zortzi kapitulu ditu. Lehenbizikoa Lockeren hizkuntz birari buruzkoa da. Gauza jakina da Locke nola sartu zen ezagutzaren teoria egitera, berak ondo azaltzen duenez, saiakeraren hasierako «Irakurleari Gutuna» izeneko testuan. Ezagutzea zer den eta ezagutu nola ezagutzen dugun argitu behar zuen lehenik, gero hainbeste kezka sorrarazten zion filosofia praktikora (batez ere, politika eta erlijioarekin lotua) heltzeko. Saiakeraren bigarren liburuan («Ideiei buruz»), giza ulermenaren oinarri diren ideien nondik norakoa

finkatu ondoren eta laugarren liburuan ezagutzearen azterketa egin aurretik, hirugarren liburua hitzei buruzkoa da, eta honako hauxe da Lososkyk lehen kapitulu honetan aztertzen duena. Ezagutzaren teoriatik orduko izen propiorik gabeko psikologiara, eta hortik semantikara Lockek egindako bidea aztertzen du autoreak. Bide obligatua empirismoaren sortzaile nagusiarentzat, ezagutza proposizioetan gauzaten delako, eta pentsamendua ideia konplexuen bidez ematen delako. Autoreak argi uzten du pentsamenduari eta hizkuntzaren arteko harremana ez dagoela behar hainbat azertua Lockeren *Saiakeran*. Baina, Aristotelesen gnoseologiaren aurka, gauzen sailkatzea hizkuntzarekin lotzen du, sailkatze bera ezagutzen dena gordetzeko eta komunikatzeko egiten delako. Horregatik, kapituluaren bukaeran, Lockek hizkuntzaren erabilpen okerraz dioena hartzen du autoreak aztergai; hizkuntzak berez dituen inperfekzioez gain, erabilpen abusuak gertatzen baitira, nahasmendua areagotuz. Hizkuntzaren ardura, den bezala hartuta, Lockeren kasuan, ezagutzaren arazoei lotua dago, eta, hizkuntzaren erabilpenak nahasmendurako bidea erraz zabaltzen duenez, hobe omen da nahastea iturrian desegitea gero urrutiko arloetan alferrik eztabaidan aritzea baino.

Bigarren kapituluaren izenburuak garbi adierazten du edukia: «Locke-enganako bidea». Oso labur idatzitako kapitulua da. Orri gutxitan, hitzen esanahiari dagokienez, Platonen naturalismoa aipatzen da *Kratilon*, eta hizkuntzaren leku filosofikoa *Sofistan* eta *Parmenidesen*; gero, Aristotelesen konbentzionalismoa seinalatzen da orri bakar batean, eta Erdi Aroari eta Errenazimentuari heltzen zaie. Erdi Aroaz ezer gutxi esaten da, eta autoreak nahiago izan du Ockhamen nominalismoaz eta kontzeptualismoaz ohar batzuk egitea *proprietates terminorum* izeneko teoriaren oinarriak azaltzea baino. Horretan ez du aukera ona egin. Errenazimentuari buruz pixka bat luzeago hitz egiten du. Logika eskolastikoaren aurkako eraso Aristotelesen aurkakoa bihurtzen da, eta, bide batez, filosofiaren aurkakoa ere bai, dialektikaren gainetik hizlarien erretorika jarritz. Valle eta Vives autoreak aipatzen ditu labur. Horren ondotik, Bacon eta Hobbes datoz, baina ez batak eta ez besteak ez zuen hizkuntzaren azterketa egin filosofiaren premietarako.

Hirugarren kapituluak interes gehiago dauka, Leibniz eta Condillac azaltzen direlako. Leibnizen *Nouveaux Essais* obrako hirugarren liburua deskribatzen da, Leibnizen ontologia eta teodizea kontuan hartuz. Hizkuntzaren forma logikoa da aztergai, hizkuntza formala sortzeko bidea, guztiaren ondotik arrazionamendua kalkulura eramateko, eta, Boehmeren eraginez, munduaren lehen hizkuntzaren bilaketa, ideien innatismoaren eta ordena naturalaren ikuspegian. Idazteko moduan argi geratzen da Lososky urrun dagoela Leibnizengandik. Condillac hobeto azaltzen du autoreak, Lockeazalea izanik, ilustratuen eraginez jarrera antimetafisikoa duelako, nahiz cartesian dualismoaren barruan segitu nola edo hala. Naturalismoari bidea zabaltzeko, hizkuntza giza ekintzan oinarritu zuen eta ezagutzarako —pentsatzeko— hizkuntza faktore determinatzailea dela sostengatu zuen. Lockeren ondoren sortzen diren

hizkuntzaren bi ikuspegi filosofiko hain ezberdin horien artean —Leibniz eta Condillac—, Condillacek uste izan den baino garrantzi gehiago du.

Laugarren kapituluak ez du aipamen berezirik merezi. Hogei bat orrialdetan Wilhelm von Humboldten obra nagusiaren (*Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluss auf die geistige Entwicklung des Menschengeschlechts*) berri ematen da. Kapituluaren bukaeran, Kanten ondoko erreakzio kontrailustratua aipatzen da, horretarako Hamann eta bere ikasle Herder gogoan hartuz. Bosgarren kapituluak interes gehiago du, labor bada ere John Stuart Millen lana azaltzen duelako. Utilitarista heterodoxo horrek *A System of Logic* argitaratu zuen, 1843an, urte luzeetan unibertsitate britainiarretan ikasketa liburu obligatua izan zena. Logikaren muinean, zientzia esperimentalen beharretarako, indukzioa sartu zuen (Baconek hasitako ildo sakonduz), nahiz zientzia moraletarako dedukzioa mantendu obra horren seigarren liburuan. Baina, logika egiteko, pentsatzeko artearen zati gisa, beharrezkotzat jo zuen hizkuntzaren analisisik hastea, logikarik tradizionalan, arrazonomenduari heldu baino lehen, kontzeptuen (kategorien) eta judizioen teoria egiten zen eran; horretarako bere obraren lehen liburua izenei eta proposizioei eskainiz. Hizkuntza pentsatzeko tresna nagusizat hartzen du, eta tresnaren erabilpen zuzenaz kezkatzen da. Losonskyk ondo seinatzen du Benthamen eragina, eta baita azken horrengan Tookek izandakoa ere. Millen obraren lehen liburuko bigarren eta hirugarren kapituluak izenei buruzkoak dira, eta ondotik datozen beste hiru kapitulu proposizioei buruzkoak. Izen orokorrak eta indibidual edo singularrak bereizi ondoren, eta baita izen konkretuak eta abstraktuak ere, garrantzi apartekoa du Millentzat izen konnotatiboak eta ez-konnotatiboak bereizteak. Izen ez-konnotatibo baten esanahia subjektu bat da edo atributu bat da; izen konnotatibo batek, berriz, subjektu bat denotatzen du, eta atributu bat inplikatzan du (hartu «subjektu» atributuak dauzkan edozer bezala). Horrekin batera, autoreak Millen proposizioen teoria aurkezten du, laugarren kapituluaren hasieratik argi utziz proposizioa predikazioaren bitartez lortzen dela: ez da aski bi izen elkarren ondoan jartzea, bata subjektua eta bestea predikatua izanda lotu behar dira, proposizioa subjektuari buruz predikatua baieztatzen edo ezeztatzen denean sortzen baita. Losonskyk argi azaltzen du Millen proposizio erreal eta ahozkoen artean egiten duen bereizketa, eta baita horren kritika ere, esanahiaren teoria modernoan aitzindari izan zela aitortu ondoren.

Seigarren kapitulua erabat deskriptiboa da, eta aski lan izan du autoreak Fregeri buruz dagoen literatura ikaragarri handiaren aurrean aukera egin, eta zerbait taxuzkoa prestatzen. Ez da lan erraza. Millen aurka, enpirismoaren eta psikologismoaren aurka, aritmetikaren oinarrietan (eta, ondorioz, logikan) Fregek egindakoa labor eta ondo azaltzen du Losonskyk. Literatura zabal hori gogoan hartuta, agian interes berezia du kapituluaren bukaeran aipatzeak, baitetik, Fregerengan nolabaiteko eragina izan zezaketen Friedrich August Trendelenburg (1802-1872), Brentanoren irakaslea eta *Logische Untersuchungen* bere obra nagusian lehen aldiz *Begriffsschrift* terminoa erabili zuena, eta, bestalde,

bereziki Rudolph Hermann Lotze (1817-1881), Fregeren filosofia irakaslea eta *Logik* obra argitaratu zuena, 1874an.

Zazpigarren kapitulua lehen aldiko Wittgensteini, Carnapi eta Quineri eskainia da. Hiru filosofo horiek batera hartuta zaila da berrogei orrialde baino gutxiagoko kapitulu batean deskribapen lasai eta zehatzak lortzea, aurreko kasuan baino literatura askoz gehiago dagoelako. Nahikoa lan izan du Losonskyk *Tractatusa* laburbiltzearekin, Carnap sintaktikoa (eta ezin laburrago semantikoa ere bai) azaltzearekin eta Quineren naturalismoaren eta itzulpen erradikalaren indeterminazioaren defentsaren garrantzia azpimarratzearekin, kapituluaren azken orrialdeak Davidsonen esanahiari buruzko teoriaren oinarritzko elementuei eskainiz. Kripkeren ausentzia sentitzen da.

Azken kapituluan, bigarren aldiko Wittgensteinekin batera, Derrida eta Davidson datoz. Hemen ere gauza bera esan behar da Wittgensteini buruz: justu-justu ematen du hizkuntz jokoan berri. Ez da ezer esaten Wittgenstein hil eta bi urtera Anscombek argitara emandako *Philosophical Investigations* (1953) obrak izandako eraginaz, hogeigarren mendeko bigarren zatian. Derrida kontuan hartzea aukera ona izan da, estrukturalismo linguistikoak, literaturaren eta diskurtsoaren teoriaren bidetik, filosofian izan zuen eraginaren aurkako jarrera zorrotza azaldu zuenez, logozentrismoari kritika sakona egiten zion bitartean.

Esan daiteke hemendik aurrera falta den guztia falta dela. Baina dena ez da garrantzitsua Losonskyren liburuaren helburuari eta izenburuari begiratzeko bazaie. Filosofia modernoan (eta gaurkoan) izan diren hizkuntz bira nagusiak aztertu nahi izan ditu. Ez du, beraz, zentzurik liburuari beste ezer eskatzeak. Ez da gaur egungo hizkuntzaren filosofiaren azterketa, liburua ez baita horretarako. Baina, hala ere falta dena falta da. Bederatzigarren kapitulu batek filosofia analitikoan, post-analitikoan eta pragmatistan Austinen eta Griceren ondotik filosofian gertatutako hizkuntz bira pragmatikoa aztertu beharko luke. Hamargarren kapitulu batek tradizio analitikoak «ahazten» dituen joera eta ibilbide filosofikoak ganoraz hartu beharko lituzke kontuan; batez ere, filosofia fenomenologikoa, filosofia hermeneutikoa eta komunikazioaren filosofia «transzendental», Apelen zentzuan, edo filosofia komunitarista intersubjektibo kritikoa, Habermasen zentzuan.

*Jesus M. Larrazabal*  
ILCLI